



Erredakzio batzordearen gomendioak 2019ko idazleei

Euskal eta pirinioar arloak lehentasunez hunkitzen dituzten eta oraindik argitaratuak izan ez diren lanak argira ekartzen ditu onesgarriak dira.

Idazle bakoitza da berak idatzikoaren arduradun bakarra.

Artikuluak argitaratua izan orduko, idazleak bere eskubideak argitaratzaileari utzi dizkio.

Aldizkariaren hiru ale eskainiak eta idazlearen eskura utziak dira Euskal Museoaren Adiskideen Elkartearen egoitzan.

Forma eta tipografia

Ondokoez osatuak dira nahitaez Erredakzio batzordeari aurkeztu artikuluak:

- titulu laburra (5 edo 6 hitz), halaberrez azpтитulu batekin; idazlearen(en) izen-deiturak;
- guhaurek euskarara eta/edo, hala behar izanez gero gaskoierara itzuliko dugun bederen 50 hitzeko, laburpena. Beharrezko gutieneko argibideak ekarriko dituzten hitz-gakoak izan beharko dira laburpenean.
- Zuen artikuluak bilaketa tresnaren bidez atzemanen dute web gunearen bisitariak (http://bdd.samb-baiona.net/controleur.php?action=action_accederModuleDeRecherche).

Gehienik 36 000 karaktereko (tarteak barne) testua euskaraz edo frantseseraz. Ingeleserazko eta espainolerazko testuak aztertuak izanen dira.

- Testua, Arial letra-tipoz eta 10 izarian joa izanen da, batere egituratu gabe (lerroarte sinplez, buletarik eta tabulaziorik gabe). Milesker À eta É bezalako maiuskulen azentuazioa zaintzea (« État » hitzan bezala adibidez).
- Ingeles aipu-marken artean (") idatziak izanen dira aipamenak.
- Frantseseraz ez diren izen arruntak, bai eta aldizkari, liburu eta arte obren tituluak italikoz izanen dira.
- Idazleak moztu testu baten zatia kako eta hiru punturen bitartez [...] adierazia izanen da.
- Oharrak artikularen bukaeran agertuko dira, molde jarraikian zenbaturik (« Txertatze » menua, « orri oineko oharra » hautabidea zuen testu tratamendu aplikazioan). Guztira ez du orri bat baino gehiagokoa izan behar (3 700 karaktere inguru, tarteak barne).
- Ondoko ereduari jarraikiz agertuko da ohar batean jadanik aipatu obra batez egin aipamena: HASKELL Francis, 1982, op.1. aip.,12. or.

Gehituak izan daitezke ere:

- eskerrak testu bukaeran;
- xehetasun gehigarriak: titulua, instituzioa, helbidea, @ ;
- bibliografia.

Testu formatuan igorria izanen da fitxategi numerikoa (.doc, .rtf edo beste)

Bibliografiaren aurkezpen arauak

Salbuespenez baizik ez dira orri bat baino gehiagokoak izan behar, erredakzio batzordea onartu kasuetan salbu.

Idazleen ordena alfabetikoaren arabera aurkeztua izanen da eta ondoko printzipioei jarraikiz:

- liburu baten kasuan: TOULET Paul-Jean, 1986, *Obra osoak*, Paris, Robert Laffont, "Bouquins" bil., 1523 or.
- aldizkari batean sartu artikulu baten kasuan : BOISSEL William, 1934, "La légende des douze pairs dans la Chanson de Roland", *Euskal Museoaren Aldizkaria*, 3-4. zkia, 73-85. or.
- obra kolektibo batean sartu artikuluaren kasuan : LAFOURCADE Maïté, ETCHEVERRY-AINCHART Jean, 1979, "La transmission juridique de la maison basque", in *Etxea ou la maison basque*, *Les Cahiers de la culture basque*, 1. bol 3. faszikulua, 20. or.
- erreferentzia elektronikoko baten kasuan, URL-a (web helbidea) eta kontsultaren eguna zehaztu.

Erreferentzia bibliografikoak artikulu bukaeran eta zerrenda alfabetikoan agertuko dira. Dataren kakotx baten ondotik eman idazlearen izena dakarren parentsia baten bidez iragarriak izanen dira testuan.

Adib. (TOULET, 1986). Artikulu berdineko idazle desberdinak baldin badaude, et al. Gehituko diogu lehen idazlearen izenari).

Irudiak

Irudien zerrenda

— hauen erreferentziak formaren azpian, testuan agertuko direlarrik (1. Ir, 2. Ir., etab.)

— legenda labur bat eta argazki bakoitzaren jatorria agertuko dira (edota erreproduktzio eskubideak ere). Fitxategi bereizian helarazia izanen da. Irudiak dossier bereizi batean helaraziak izanen dira. « 1. Iru. » , « 2. Iru. » etab. titulupean agertuko dira. Irudiak inprimatzea ala ez erabakiko du erredakzio batzordeak. Bereizmen handikoak izan behar dute irudiek (300 dpi bederen) kalitateko inprimaketarako.

Irudi. formatuan (jpg., tif. edo beste) igorriak izanen dira irudiak; legenden fitxategiak testu formatuan (.doc, .rtf edo beste) eta fitxategi bereizian ere.

Baionako Euskal Museoko bildumetatik etorri irudiak doitzen ahalko ditu erredakzio batzordeak.

Artikulua osatzen duten fitxategi guztiak ondoko helbidera e-postaz igorri behar dira:

bulletin@samb-baiona.net

Beste argibide oro behar izanez gero, ondoko urratsak bete ditzakezue:

- <https://samb-baiona.net/eu/> gunera jo

- zuen eskaera mezuelez, bulletin@samb-baiona.net edo gutunez